



HIRUKO ERREGELA

1. 9 menuren prezioa 166,50 € bada, zenbat izango da 15 menurena?

Menu kopurua	€

€ 15 menurena

2. Mapa batean, 14 cm-k errealitateko 238 km adierazten dute. Zer luzerak adieraziko ditu 306 km? Mapan 10 cm adierazita badaude, zenbat da errealitatean?

Mapako cm	Errealitateko km

cm mapan

Mapako cm	Errealitateko km

Km errealitatean

3. Okindegian 42 € ordaindu dituzte 70 ogi. Zenbat ordainduko zuketen, 70 ordezt 45 ogi erosi balituzte?

Ogi kopurua	€

€ 45 ogi erostean

4. Auto batek 46 euro-zentimo gasolina erretzen ditu 4 km egiten. Zenbat diruren erregaia beharko du 270 km-ko bidaia egiteko, kontsumo-maila horri eusten badio?

km	Euro-zentimo

Euro bidaia egiteko

5. 2,25 m-ko altuera duen zuhaitz batek 2 m-ko itzala egiten du. Zer altuera izango du ordu berean 188,8 m-ko itzala egiten duen dorre batek?

m altuera	m itzala

m altuera izango du

6. Arantzazuk 2 metroko oihal-pieza erosi du, 32 € ordainduta. Zenbat ordainduko zuen 3,2 metroko oihal-pieza?

metro	€

€ ordainduko zuen

7. Auto batek 25 litro erregai erretzen ditu 300 km-ko bidaia egiten, abiadura jakin batean doala. Zenbat erreko ditu 550 km-ko bidaian, abiadura berean joanda?

Litro erregai	km

litro erregai bidaia egiteko